

PLaza

2007KO AIPAGARRIENAK (III) > **Literatura**

Izen kanonikoen itzaletik at ere, aberats

Muñoz, Perurena, Zubiri, Linazasoro, Rodríguez eta Otamendiren obrak daude kritikariek hautatuen artean

ARANTZAZU MUÑOZA

Euskal literaturaren iazko uztatik, hiruna liburu nabarmendu dituzte Beñat Sarasola, Bixente Serrano Izko eta Mikel Aierbe BERRIAKO literatur kritikariek. Izen kanonikoen handien itzala urria izan bada ere, oro har, aurtengo uztaz aski aberatsa iruditu zaie hiruroi.

Beñat Sarasola

‘Egungo euskal eleberraren historia’

«Euskal literaturako balizko kritika faltari-edo erantzun nahi izan dioten bi liburuk eman didate arreta azkenaldian: *Maldetan Sagarrak* (2006koa) eta *Egungo euskal eleberraren historia* (2007koa). Azken honen berezitasun nagusia aberastasuna da. Aberastasuna diskurtso motan, iruzkingileetan, ikuspuntuetan etab. Literaturaren historia kanonikoetatik urrun, azken urteetako eleberrir sortu bat aztertzen da sistematzeko eta kanonizatzeko asmo handirik gabe. Interesgarria hitzaurrea ere, non egungo euskal eleberraren tipologia orokor bat zirriboratzaren den».

■ **Egileak:** Asko.

■ **Arduraduna:** Iñatze Retolaza.

■ **Koordinatzailea:** Jon Kortazar.

■ **Argitaratzailea:** EHU.

‘Antzararen bidea’

«Gerra Zibil aurrea eta gaur egungo egoera politikoa lotuz eleberrir sendoa osatu du Jokin Muñozek. Eleberria zeharkatzen duen intriga puntuak tentsio narratiboa mantentzea lortzen du hasieratik bukaeraraino. Liburu gogorra, bai, irakurleari atsedendaldi gutxi ematen dizkiona. Ez espero hemen libelula anarkistarik, hementxo anarkista bakarrak *Gora komunismo libertarioa!* eta halakoak oihukatzen dituztenak dira».

■ **Egilea:** Jokin Muñoz.

■ **Argitaletxea:** Alberdania.

‘Erlojuen mekanika’

«Gure artean punta-puntako poeta dugu Otamendi. Baina betiko formuletan gelditu beharrean poesia molde berrietara lerratzen ahalegintzen da lan honetan. Maisuki dominatu eta mimatzen ditu poemetako hitz eta kadentziak. Min-



gostasuna edertasunez aditzera eman daitekeelako frogar garbia. Enmarkatzeko moduko poema bikiak aurkitzen ahal dira».

■ **Egilea:** Jose Luis Otamendi.

■ **Argitaletxea:** Susa.

Bixente Serrano Izko

‘Bizian argitaratuak’

«Kafkaren obra zentraletan dauden balio nagusiak ikus ditzakegu ipuin hauetan, eta liburu hau atari egokia izan daiteke idazle hau euskaraz irakurtzera ohi gaitzen. Bere estilo berezia bikain egokitzen zaie sortu nahi dituen giro eta kezkei. Euskaratzeak oso ongi lortu du balio horiei eustea».

■ **Egileak:** Franz Kafka.

■ **Itzultzailea:** Naroa Zubillaga.

■ **Argitaletxea:** Alberdania eta Elkar.

‘Dakiguna ikasten’

«Hau plazera Perurenaren euskarra fresko, adierazkor, bizia irakurtzea! Bere hausnarketa semantikoak, eruditut batenak bainoago, pensalarir batenak dira: hitz fosildu askoren erraiak arakatzean, ate berriak irekitzen dizkio gure irudimen sortzaileari. Jatorriasuna aitortu behar diogu ideia askotan. Eta erritmo polita lortu du lan honetan ere, pentsamendua, ikerketa eta narrazioa bikain uztartuz».

■ **Egileak:** Patziku Perurena.

■ **Argitaletxea:** Alberdania.

‘Diotenez’

«Irudimena, sentiberatasuna, hitzekiko eta ideiekiko sen jostaria, poesia, zentzu kritikoa, ironia, begi zorrozatasuna, jatorritasuna..., bil-

tzen jakin ditu testu labur-laburretan, aforismo eta ipuin hauetan. Urregin batek bezala landu ditu testuak, baina ez harribitxi ukiezinak lortzeko asmoz, baizik eta mila errainu eskaintzeko irakurleari, hau gero bere kabuz aurkituntza berrien bila abia dadin».

■ **Egileak:** Karlos Linazasoro.

■ **Argitaletxea:** Erein.

Mikel Aierbe

‘Gaueko gezurrak’

«Urtetik urtera itzulpenen artean geroz eta aukera interesgarriagoa

dagoen arren, Bufalinoren *Gaueko gezurrak* nobelaren irakurketak aurreneko unetik harrapatu ninduela aitortu behar dut. Bere unean esan nuen bezala: ‘Irakurleak hasieratik dakizki nobelako argumentu nagusiko jokoaren arauak, baina azken unera arte protagonista bakoitzaren jokaldien atzean ezkutatu da azken gertakizunaren garapena’. Kontaketak kontaketen barruan korapilatzen diren trama horretan, liburu honi erakargarri irizteko ezaugarri asko aurkitu ditu irakurleak».

Zabala, Kuipers eta Dematonsen liburu bana aipagarri haur eta gazte literaturan

A. M.

Ohi bezala, uztaz oparoa izan zuen iaz ere euskarazko haur eta gazte literaturak. Euskaraz sortutako liburu baten eta itzulpen biren aldeko hautua egin du Iñaki Agirrezabal BERRIAKO kritikariak.

Iñaki Agirrezabal

‘Bideak, aldapak eta bihurguneak’

«Hamasei urte inguruko gazte baten buruhauste eta noraezak (asko) hitz gutxitan eta barru-barrutik kontatuta. Txirrindularitza, musika, lagunak eta bere adineko jendearentzat garrantzitsuak diren beste hamaika gauzekiko interesa handia du protagonistak, guztia intentsitate handiz biziz. Txir-

rrindularitza bezala bizitzan ere bideak, aldapak eta bihurguneak pasatu behar dira aurrera egiteko, beste bihurgune, aldapa eta bideetara joateko».

■ **Egilea:** Juan Luis Zabala.

■ **Argitaletxea:** Elkar.

‘Nelek nahi duena margotzen du’

«Protagonistaren irudimenetik sortutako marrazkiak ulertzea zaila egingo zaio haren lagunari, baina horrek ez du haien arteko laguntasuna kolokan jarriko; aitzitik, erakargarriago bihurtuko du. Maitasuna, beldurra, sorkuntza eta umorea nahastzen dituen istorio biribila da, kolore biziko ilustrazio ederrekin osatua».

■ **Egilea:** Gesualdo Bufalino.

■ **Itzultzailea:** Josu Zabaleta.

■ **Argitaletxea:** Alberdania eta Elkar.

‘Zakur kale’

«*Opera prima* honetaz ‘freskoa eta ausarta’, ‘txukuna eta interesduna’, ‘oso irakargarria eta trebea’ dela idatzi dute hainbat kritikariek. Kritika horietan baina batzuk aipatzen ziren arren, ipuin bilduma erakargarria idatzi du Zubirik. Erakargarria narrazioetan agertzen diren gaiak dagokienez (lan munduko auziak eta bestelako gatazka sozialak), eta erakargarria gai horiek narrazioetan txertatzeko aukeratutako ikuspegi, estilo eta teknikagatik ere».

■ **Egileak:** Harkaitz Zubiri.

■ **Argitaletxea:** Susa.

‘Haragia’

«Idazlearen erronka nagusia estilo propio bat lortzea dela entzun izan dut sarritan. Liburu batek estilo bat izan dezake eta hurrengoak beste bat (edo antzekoa), baina azpian nagusitzen den idazlearen ahotsak estilo propioa badu, orduan benetako idazle baten aurrean omen gaude. Eta hori sentitu du *Haragia*-aren irakurle honek, idazleak baduela idazteko modu propio bat. Liburu honetan ipuin bikainak daude, antologikoak, erabat iradokitzaileak (liburuaren izenburua eta azala bezala, bestealde)».

■ **Egileak:** Eider Rodríguez.

■ **Argitaletxea:** Susa.

■ **Egilea:** Ben Kuipers.

■ **Ilustratzailea:** Yvonne Jagtenberger.

■ **Itzultzailea:** Aitor Arana.

■ **Argitaletxea:** Ibaizabal.

‘Goazen!’

«Haur baten irudimena iruditzen emanda. Protagonistak berak gonbidatuta jarraituko du irakurle-ikusleak ohiko toki ezagun batean gertatzen den istorioa ez ohikoa. Nahi adina bitxikeria, sorpresa eta ipuin ezagunetako pertsonaia topatuko daitezke liburuan aurrera eta atzera ibilita. Umorea eta jolasa uztartzen dituen ilustrazio dotoredun liburu».

■ **Egilea:** Charlotte Dematons.

■ **Itzultzailea:** Bakun Euskara Zerbitzua.

■ **Argitaletxea:** Tarttalo.